



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2021EKO EKAINAREN 30EAN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2021eko ekainaren 30ean, arratsaldeko 19:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Santos Etxegia, Xabier Azpiroz, Ricardo Arangoa, Olatz Dorai, Julen Beunza eta M^a Mar Ansorena.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAIZERRENDA

1.- Aurreko aktaren onspena.

Maiatzaren 24an egindako batzarreko akta emailaz helarazi zaie zinegotziei eta aho batez onartzen dute bildutakoek aurreko batzarreko akta.

2.- Alkate ebazpenak

Alkateak ondoren transkribatzen diren ebazpenak irakurtzen ditu.

- 2021/71 alkate ebazpena: Baimena ematea Basaburuko Bilgune Feminista elkarteari, Aizarotzko herrikoetxeko gela haundia erabiltzeko, maiatzaren 29an arratsaldeko 17:30etatik 18:30etara elkarteko bilera bat egiteko.

-2021/72 alkate ebazpena, onartzea behin behinekoz gainbalioari lotuta ez egotea Aizarotzko Mendialdea karrikako 2 zenbakidun helbidean dagoen etxebizitzaren salerosketa Iriarte Jauregi anai arrebeek eskatua.

- 2021/73 alkate ebazpena Juana M^a Ochotorena Galarzak aurkeztutako aitorpen arduratsua onartu, Berueteko 11. Poligonoko 423. Lursailean dagoen eraikinaren teilatua eta fatxadak eraberritzeko, aurrekontua 11045 eurokoa izanik.

-2021/74 alkate ebazpena Juana M^a Ochotorena Galarzak aurkeztutako aitoren arduratsua onartu Berueteko 11. Poligonoko 467. Lursailean dagoen eraikinaren teilatua eta fatxadak eraberritzeko ikusita ez dagoela oztopo urbanistikorik, obra honen aurrekontua 11.115 eurokoa da.

-2021/75 alkate ebazpena Josune Ripaldari obra baimena ematea onartu Arraratsko 14. Poligonoko 272. Lursailean aterpea egikaritu eta siloak botatzeko , udal arkitektoaren 21/339. baiezko txostena ikusita obra honen aurrekontua 15.627,09 eurokoa da.

-2021/76 alkate ebazpena onartuz obra baimena ematea, Jose Joaquin Barberenari Berueteko 11. Poligonoko 455. Lursaileko etxebizitzan gasoleozko galdara egurrezkora aldatzeko.

- 2021/77 alkate ebazpena, onartzea Jesus Maria Arano Lampreabek egindako eskaera, 2021 urteko zirkulazio zergaren dagokion zatia itzultzeko NA3354AL matrikuladun autoa behin betiko baja emateagatik, itzuli beharreko kopurua 29.36 eurokoa izanen delarik.

- 2021/78 alkate ebazpena baimena emanaz Irati Munduate Apariciori , Apeztegi berriko ganbara erabiltzeko, uztailan, astearte, eta ostegunetan 10:30etatik 13:30etara Street jazz ikastaroa emateko txiki, ertain eta helduei eta 19:00etatik 19:55 etara helduei. Ordenantzaren arabera 96 euroko tasa ordaindu beharko du.

-2021/79 alkate ebazpena; Baimena ematea Josu Beaumont Barberenari Apeztegi berriko ganbara erabiltzeko, ekainaren 11ean 19:30etatik 21:30etara hitzaldi bat antolatzeko.

-2021/80 alkate ebazpena onartuz Rafael Lacambra Morerak egindako eskaera ekainaren 10ean, 10etatik aurrera herrikoetxeko gela txikia erabiltzeko bizilagunen bilera bat egiteko. Ordaindu beharreko tasa 10 eurokoa da.

- 2021/81 alkate ebazpena onartuz Josune Lopez Osinagak egindako eskaera, 2021. urteko zirkulazio zergaren dagokion zatia itzultzeko, 0918JDG matrikuladun autoa behin betiko baja emateagatik, itzuli beharreko kopurua 44,04 eurokoa izanen delarik.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte irakurritako alkate ebazpenak.

3.-Udaletxean fotokopiak eta inprimakiak egiteko arauak.

Alkateak azaltzen du bizilagunak hainbat aldiz bere ekintza partikularretarako kopiak egitera udalera etortzen direla, eta batzuetan ere emailen bidez bidaltzen dituzte eranskinak inprimatzeko.

Kontutan hartutako udala ez dela fotokopiak egiteko gunea, eta kopiak egitearen lan honek langileen lan karga haunditzen duela, bildutakoak ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

Basaburuko udalak, udalean egiten diren kopiak kobratzea beti ere kopia hauek norbanako gaiekin lotutakoa badira. Udaleko tramitazioen bat egiteko berak ekarritako dokumentazioari kopia egin behar bazaio ez zaio kobratuko.

Kobraketa egitea dagokionean modu honetan egingo da:

A 4 txuri beltzean 0.40 euro/kopia A 4 koloretan 1 euro/kopia

A3 txuri beltzean 0.80 euro/kopia A 3 koloretan 2 euro/kopia

Erabaki hau udal bulegoetan eskuragarria izan dadin adosten dute ere bildutakoek eta web orriaren bidez zabaldu.

4-Egozkue auzoan argi indarraren linearen mantentzeari buruzkoa akordioa.

Alkateak azaltzen du Berueteko Egozkue zonaldean dagoen baserri batera duela andana urte argi indarra eraman zuen bertako jabeak, bere kargu egin zuen azpiegitura osoa eta orain arte bera izan da mantentzen arduradu dena.

Kontua da azpiegitura hori udalak probestu duela irratia hornitzen duen antenaren argi indarra eramateko eta orain berriko fibra optikoa jartzeko azpiegitarako ere erabiltzen da.

Aipatutako jabeak udalarekin bilera izan du eta bertan udalari eskatuko dio berak hartzea azpiegitura horren mantentzen, bertatik hornitzen delako irratia eta Berueteko fibra optikoaren azpiegitura ere.

Hortaz bildutakoek ondoren zehazten den erabakia hartzen dute aho batez:

- **Udalak bere gain hartzea Berueteko Egozkueko parajeetan dagoen Idiagako Bordara doan argi indarraren azpiegitararen mantentzen, goian aipatutako argudioak kontutan hartuz eta erabaki hau Idiagako bordako jabeari jakinarazi.**

5.- Mozioak.

Alkateak adierazten du ekainaren 28ko LGTBI harrotasunaren nazioarteko egunaren ildora, irakurri eta transkribatzen den mozio hau da:

“52 urte igaro dira **Stonewallen** lesbiana, gay, transexual eta, batez ere trabestiak, poliziaren aldetik jasaten zituzten jazarpena eta xantaiaren aurrean errebolatu zirenetik: data hori mugarri bihurtu zen LGTBI pertsonen borrokan. 10 urte beranduago, 1979ko ekainaren 10ean, polizia batek Antonio Vicente Santa María (Francis) hil zuen Errenteriako diskoteka batean, trabesti izateagatik. Ekainaren 28 horretan **LGTBI pertsonen eta kolektiboek Euskal Herriko kaleak hartzen dituzte** estreinako aldiz, euren sexualitatea eta generoa modu askean bizitzea aldarrikatuz.

Stonewalleko gertakarien geroztik ekainaren 28an **LGTBI Harrotasunaren Nazioarteko Eguna** ospatzen da: borroka disidente luzea eta egindako lorpenak ospatzeko eguna da, baita eskubideen eremuan aurrerantz egiteko falta den guztia aldarrikatzeko eguna

ere: eskubide berberak dituen jende askearen gizartea izateko, sexu-desioaren orientazioagatik edo genero-identitateagatik bereizkeriarik gabe.

Urtebete baino gehiago igaro da pandemiak gure bizitzak gogor astindu zituenetik. Informazio eta datu askoren arabera badakigu jada konfinamenduak LGTBI pertsonen aurkako diskriminazio-maila handiagoak ekarri dituela; haien eskubideak bermatu beharrean, urratuak izan dira, zaugarritasun bereziko testuinguru batean. Are gehiago, gaur egun krisi sozioekonomiko larriak ate joka dugunean, gorroto-diskurtsoak eta erasoak areagotzen ari dira, eta LGTBI pertsona askoren bizi-baldintza orokorrak prekarizatzen eta okertzen ari dira, batez ere bereziki zaugarriak diren kolektiboenak, hala nola trans pertsonak, egoera administratibo irregularrean daudenak, arrazializatuak, etab. Bereziki kezagarria da Trans pertsonen aurkako gorroto diskurtsoen igoera.

Pandemiak agerian utzi du eskubideetan egindako aurrerapenak, kolektiboen eta ekintzaileen urteetako borroka neketsuari esker lortu direnak, hauskorrak direla, eta oso erraza dela horiek galtzea eta atzera egitea. Orain, osasun-krisitik ateratzen ari garenean, "normaltasun" desiragarria itzultzearen diskurtsoak gailentzen ari dira: normaltasun horrek, ordena sozialean mendeko egoeran daudenentzat, bazterretan daudenentzat, baztertuta bizitzen jarraitzea esan nahi du, beren eskubideez gozatu gabe edo dituztenak galduta ere bai.

Krisi-une honetan, inoiz baino gehiago konprometitu behar gara, konpromisorik gabeko adierazpen hutsak baztertuz. Erakundeetatik pertsona guztientzako eskubide guztiak bermatzeko erantzukizuna dugu, eta bereziki zaindu behar dugu LGTBI bezalako kolektibo zaugarrienen eskubide horiek izan ditzaten. Aitzakiarik gabe, politika eraldatzaileak eta nahiko baliabideak bermatu behar ditugu, gure udalerrri eta herrialdeetako LGTBI pertsonen beharrei eraginkortasunez erantzuteko: krisiaren ondorio negatiboak iraultzeko premiazko politikak eta sexu-orientazioagatik edo genero-identitateagatik mendekotasunik eta hierarkiarik gabeko gizarte-eredurantz transitatzeko aukera emango diguten politika emantzipatzaileak, euskal jendarte errespetuzkoago, justuago, duinago eta askeago baterantz aurrera egiteko.

Urtero bezala, ekainaren 28 honetan aitortu nahi dugu LGTBI kolektibo eta pertsona ugariaren borroka luze eta ordainezina Euskal Herrian: garai zail hauetan, pertsonen eta gure herriaren emantzipaziorako erreferente direla erakusten jarraitzen dute.

Era berean, Udal honek LGTBI pertsonen eskubideekin urteko egun guztietan duen konpromiso politikoa berretsi nahi dugu. Adierazpenetatik haratago, gure konpromisoa politika zehatzetan islatu behar da, bakoitzak bere giza baliabide, baliabide tekniko eta ekonomikoekin: mugimendu feministako eta LGTBI mugimenduko ordezkari eta adituekin adostu behar diren politikak.

Horregatik, Udal honek konpromisoa hartzen du honako hau egiteko:

- 1) LGTBI pertsonen egoeraren eta beharren diagnostikoa premiaz egitea, pandemiaren krisiaren eraginaren ondorioz, beste erakunde, kolektibo eta gizarte-eragile batzuekin koordinatuta.
- 2) Egindako diagnostikoari erantzungo dion plan edo neurri-multzoa bultzatzea, premiazkoenak diren ekintzak lehenetsiz, besteak beste, arlo hauetan: soziala, enplegua, osasuna, etab. // Krisiari aurre egiteko plangintza orokorrean, gure udalerriko/lurraldeko LGTBI pertsonen egoerari eta beharrei erantzuteko neurriak jasotzea.
- 3) LGTBI pertsonen aurkako indarkeriaren aurrean erakundeen koordinazio, arreta eta erantzun publikorako protokoloak diseinatzea eta abian jartzea.
- 4) LGTBI pertsonen eskubideak bermatzera bideratutako neurriak aktibatzea, hala nola: administrazio-formularioetan aldaketak egitea binarismoa gainditzeko, aldagelak eta komunak egokitzea instalazio publikoetan, igerileku publikoen araudiak.
- 5) LGTBI biztanleriaren aurkako gorroto-diskurtsoak identifikatzeko mekanismoak ezartzea (behatokiak, aldizkako azterketa, etab.), eta hainbat eremutan (hezkuntza, kultura, komunikazioa, enpresa eta gizartea, oro har) diskurtso horiei eta jazarpen eta eraso LGTBI Fobikoei aurre egiteko ekintzak bultzatzea (protokoloak, araudi espezifikoak, etab.).
- 6) Haurrak eta nerabe transexualak babesteko neurriak ezartzea, bereziki trans errealitatea barne hartzen duten hezkidetzeta-prozesuak, gizarte- eta hezkuntza-eragileekin.
- 7) Sexu eta genero disidentziaren gaineko prestakuntza-prozesuak bultzatzea, langile publiko eta politikoentzat, bereziki, jendeari arreta emateko, eta gizarte- eta hezkuntza-esparrurako.
- 8) Sentsibilizazio-kanpaina feministak egitea, egungo testuinguru sozialera egokituta, epe labur, ertain eta luzean, sexu-genero dikotomiari, heteronormatibitateari, sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen adierazpen-aniztasunari eta eremu desberdinetan LGTBI pertsonenganako indarkeriaren eta diskriminazioaren adierazpen eta forma anitzei buruzko kontzientzia kritikoa hartzea errazteko.
- 9) Zaintzei buruzko lan-ildoak aktibatzea ikuspuntu feministatik eta LGTBI ikuspegitik, zaintza sare komunitarioekiko, kolektibo feministekiko, LGTBI kolektiboekiko eta beste gizarte-eragile batzuekiko lankidetzeta sustatuz: besteak beste, adinekoei, desgaitasuna dutenei edo gizarte-bazterketako egoeran daudenei arreta emateko zerbitzu publikoak berrikustea (egoitzetan, eguneko zentroetan, etxez etxeko zerbitzuan, etxebizitza komunitariotean eta abarretan arreta emateko protokoloak), eta ekimen komunitarioak abiaraztea.
- 10) Adinekoen egoitzetan, etxebizitza komunitarioetan edo eguneko zentroetan, besteak beste, hainbat neurri modu koordinatuan sustatzea, LGTBI pertsonak beren aukera sexuala eta genero-aukera askatasunez bizi ahal izan dezaten, diskriminaziorik gabe, eta, besteak beste, honako hauek barne hartuta: sentsibilizazio-kanpainak, espazio bitarren berrantolaketa, eta LGTBI adineko pertsonen ekarpena ikusarazteko eta balioesteko jarduerak.

11) Indarkeriaren biktima diren eta egoera oso zaugarrian dauden LGTBI pertsonentzako harrera-espazioak sortzea, arreta psiko-sozialeko, ekonomikoko, hezkuntzako eta bizitokietako zerbitzuak integratuz, adingabeen, migratzaileen, transexualen berariazko beharrak jasoz.

12) Zeharka, LGTBI kolektiboekin, kolektibo feministekin eta adituekin identifikatutako ekintza guztien diseinu, jarraipen eta ebaluaziorako elkarrizketa lotesle eta iraunkorreko espazioak gaitzea.

Herritarrei dei egiten diegu LGTBI mugimenduak eta mugimendu feministak gure herri eta hirietan deitutako ekintzetan parte har dezaten. “

Bildutakoek aho batez onartzen dute adierazpena.

6- Batzordeen informazioa.

Garapen Batzordea. Ricardo Arangoak ematen du informazioa.

Cedernako asanblada orokorraren bilera egin da urteko memoria eta egitasmoak aurkezteko. Gainera ere zonaldeka plan estragikoa bat egingo da hainbat gai landuz eta horretarako lan taldeak sortu dira udal ordezkariekin.

Uztailaren 25eko azoka prestatzeko garapen batzordea bildu da. Berueteko plazaren inguruan burutuko da eta trikitalari taldearen animazioarekin

Gizarte Batzordea. M^a Mar Ansorenak ematen du informazioa.

Serigrafia tailerra egingo da uztailaren 7 eta 8an Apeztegi berrin 6-12 urte arteko umeentzat bideratutakoa

Kirol Batzordea. Julen Beunzak ematen du informazioa.

Sega txapelketa uztailaren 3an ospatuko da Etxalekun.

Euskara Batzordea. Olatz Doraik ematen du informazioa.

Udalekuak antolatu dira uztailaren azken astean eta abuztuaren lehenengoan, goizeko 10etatik eguerdiko 13etara Aizarotzen.

Hezkuntza Batzordea. Esther Lacastak ematen du informazioa.

Eskola kontseiluko bilera izan da asteazkenean, matrikula kanpaina eta Baso eskolak izan duen eraginaren inguruan hitzegiteko.

Jantokiaren esleipena aterako da hurrengo ikasturterako, esleipenaren baremazioaren zati bat eskolen ardurapean dago (Larraitzar eta Oihanzabal) eta beste zati bat Hezkuntzaren esku.

Baso eskolaren inguruan udalean guraso talde batek egindako eskaera irakurtzen du alkateak. Bertan bere kezka islatzen dute baso eskolaren proiektuak eskolan, umeetan, jangelan eta garraioak izan dituen ondorioengatik.

7- Informazio orokorra.

- Euskarabideari eskatutako diru laguntzaren onespena jaso da, 3830 eurokoa. Bertan UEMAren kuotaren gastua eta udalak antolatu dituen eta behar dituen beste ekintza batzuk ere sartu dira gastu bezala Bideak dokumentala, bertso saioa, antzerkia eta abar...

- Osasun programen diru laguntza. Adinduen programarako dirulaguntza jakinarazpena jaso da, 1.330 euro inguruko dirulaguntza onartu dute.

8. Erregu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 20:30 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.